

AHOLKULARITZA LAGUNTZAREN BIDEZKO PROIEKTUAK (25 ORDUKO POLTSA)

Proiektuek enpresen eta erakundeen kudeaketa sistemarekin harremana izango dute, EUSKALITEKO laguntza bisitan (B modalitatea) lehenetsitako hobekuntza arloekin.

Elementuetako bakoitzari dagokionez, esate baterako, honakoak egin litezke:

1. ESTRATEGIA ETA EMAITZAK

- Informazio iturrien optimizazioa, merkatuen analisia...
- Adierazle koadroaren sistematizazioa eta optimizazioa.
- Antolaketa ereduaren definizioa: prozesukako kudeaketa.

2. BEZEROAK:

- Arlo komertzialaren hobekuntza: Komunikazioko ekintza komertzialak diseinatzea erosteko eta ez erosteko arrazoiak jasotzeko.
- Kanpo komunikazio kanalen kudeaketa (sare sozialak, newsletterrak, webgunea...), bezeroek erosteko dituzten motibazio ugariei bideratua.
- Marka kudeaketa: posizionamenduaren definizioa, ekintzen diseinua, marka integraleko estrategia baten gauzapena eta jarraipena, balio proposamenaren definizioa.
- Xede merkatuaren definizioa (nazionala edo nazioartekoa), produktuak/zerbitzuak bideratzeko.

3. PERTSONAK:

- Lanpostuen definizioa, konpetentzien matrizearen garapena, baliokidetasunen matrizea, etab.
- Barne komunikazio kanalen definizioa eta pertsonen parte hartzea sustatzeko metodologiak.
- Gogobetetze inkestak diseinua, gauzapena ebaluatzen metodologiak, etab.

4. BERRIKUNTZA:

- Estrategiari egokitutako berrikuntza plan bat garatzea.
- Erakundearen ideiak sistematikoki jasotzeko metodologia (ebaluazioa, leheneste modua, arduradunak finkatzea...)
- Proiektu esanguratsuak kudeatzeko metodologia.

2018an programan parte hartu zuten KSI erakundeek garaturiko proiektuen adibideak:

- Elkarterako 5 urterako Ikuspegia eta Estrategia garatzea, baita lehenengo urterako ekintza-plana ere.
- Pertsonen arloan lidergoan eta denboraren kudeaketan sakontzea.
- Adierazle koadroa sistematizatzea. Egiten diren ekintzen eskema optimizatzea, eta horiei dagozkien adierazleak ere bai (emaitzak).

- Sormen prozesuetarako berrikuntza sistema abian ipintzeko metodologia garatzea, arte eszenikoak.
- Pertsonen kudeaketa: gaitasunen mapa, harrera, gaikuntza teknikoen hobekuntza...
- Bezeroekin harremana hobetzea: ikusleen inkesta, nola hautematen gaituzten, posizionamenduaren garapena eta markaren eraikuntza.
- Helburu estrategikoen identifikazioa, hauek lortzeko ekintzen garapena, eta ekintza bakoitzerako arduren banaketa orekatua.
- Arlo komertziala lantzea, eta marketing edo komunikazioa urteko plana garatzea.